

ITSASERTZA

GIPUZKOA G.2

Pagoeta



Pagoeta Gipuzkoako itsasertzeko katean kokatuta, Aiako udalerrian, Orio eta Zarauzko kostetatik kilometro gutxira. Parke Naturalak habitat ugari biltzen ditu: mendi—lepoak eta ubideak, hostozabalen basoak eta larre—eremuak. Orientazioen eta lurzoruen dibertsitateak eta itsasotik hain hurbil egoteak aberastasun handiko multzo bat sortu dute.

Mendez mendez gizakiak esku hartu du, eta multzo horretan zelaia, landazabalak eta zuhaitz—sailak sortuz, paisaia modelatu du.

Gizakiak eragindako presioa eskasa izateari eta jabetza osoa esku publikoetara pasatu izanari esker, enklabe honek bere aberastasuna eta inguruneen dibertsitatea kontserbatu du.



FIGURA ETA NEURRI BABESLEAK

• Parke Naturala (1998) // IKT (Interes Komunitarioko Tokiak).

LANERAKO GAIK

- Pagoetako egitura geologikoa: "Euskal arku tolestua".
- Pagoetako basoak: pagadia, haritzia, ibaiertzeko basoa.
- Arbola Berezia. Pagoetako hagina: ezaugarriak, espezie honi loturiko erabilera eta tradizioak, babesteko arazoak.
- Oreinak Pagoetan: habitat jakin batean espezie bat berriro sartzearen adibideak, morfologia, elikadura, azturak.
- Landazabal atlantikoa: baserria eta honen ingurunea.
- Erlatoki didaktikoa: ezaugarriak, azturak, erabilera, erleen produktuak.
- Pagoetako mendien baso—ustiapena: garrantzi historikoa, zuraren erabilerak, basoen atzerakada, baso—sailak.
- Iturrarango Lorategi Botanikoa (arboreso—frutizetosa): espezieen identifikazioa.
- Espazio babestu baten kudeaketa eta plangintza: araudia, antolamendu—planak, patronatua. Naturagune babestu izendatzeak dituen abantailak eta eragozpenak.
- Landa—industriak, burdinolak eta erroak: Agorregiko burdinola.
- Etnografia: Iturrarango erakusketak etnografikoa.
- Erabilera tradizionalak: elurtegiak eta karegileak.